

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroa Ziklistentzako Hiri eta Eskualdeen Europako Sareari atxiki zaio

*Gobernuak ingurumenarekiko turismo iraunkorraren alde hartutako konpromisoa indartu eta jardunbide egokiak zabaltzeko topagunerako sarbidea ematen du*

Osteguna, 2018.eko urriak 25

Nafarroako Gobernuak “Cities and Regiones por Cyclists” sareari atxikitzeko agiria sinatu du, azpiegitura ziklagarriak sustatu, bizikleta bidezko turismoa bultzatu eta landa ingurunea iraunkortasunez garatzearen aldeko interesa indartuz.

Turismo eta Merkataritzako zuzendari nagusi Maitena Ezkutari,

Ingurumen eta Uraren zuzendari nagusi Eva García Balaguerrek eta Europako Ziklisten Federazioaren arduradun Holger Hauboldek aurkeztu dute bat-egitea Iruñean.



Eva García Balaguer, Holger Haubold eta Maitena Ezkutari.

Sarean sartzeak atxikitako hiri eta eskualdeen arteko jardunbide egokien trukean parte hartzea dakar, baita ECFek ([European Cyclists Federation](#)) baliabide eta informazioei buruz kudeatzen duen datu-baserako sarbide eskusiboa, gaiari buruzko tailerretan parte hartzeko deskontuak eta gonbidapenak eta Europako politika ziklistei loturiko finantzaketa nahiz topaketei buruzko hileko informazioa ere.

Sareari atxikita daude mugikortasun ziklistaren arloko zenbait hiri aitzindari; hala nola, Kopenhage, Viena, Munich edota Holandako Gelderland eskualdea.

Bizikleta garraiorako edo aisialdirako erabiltzea, eta ingurumenarekiko zein tokiko garapenarekiko harmonia zeharkako baliabidetzat hartu da Nafarroako Gobernuaren estrategian. Halaxe jakinarazi da aste honetan, [Nafarroa Ezagutu sareari](#) buruzko lan-saio batean, landa ingurunean aberastasuna sortzeak duen garrantzia nabarmenduz.

Turismoaren ikuspuntutik, Sarearekin bat egiteak bi proiektu hauek indartuko ditu: [Atlantic on Bike](#) (6 herrialde partaide dituen proiektu europarra, Eurovelo 1 ibilbide ziklistaren inguruko helmuga turistikoa sortzea xede duena) eta Ederbidea (Gipuzkoarekiko eta Pirinio Atlantikoekiko lankidetza bidezko proiektua, bizikletaren bidezko

mugikortasuna sustatzeko). Garapen Ekonomikoko Departamentuak bi proiektu hauetan lanean jardun du azken urteotan, bereziki ibilbide ziklagarriak egokitzeari dagokionez, erabilera turistikoa dutenak barne hartuta.

Horren harira, kontuan hartu da Nasuvinsa enpresa publikoak, Lursarea Nafarroako Iraunkortasunaren Agentziaren bitartez, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi dagokion bat-egitea sinatu izana.